


DMD-DHE EUSKADI MEMORIA

2020



dmddhe
DERECHO A MORIR DIGNAMENTE
DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA
E U S K A D I

Edukia.

| | | |
|----------|---|-----------|
| 1 | SARRERA. | 1 |
| 2 | ELKARTEAREN JARDUERA 2020AN. | 2 |
| 2.1 | EKINTZA POLITIKOA. | 2 |
| 2.2 | HEZKUNTZA- ETA HEDAPEN-EKINTZA..... | 2 |
| 2.2.1 | Solasaldiak-eztabaidak. | 2 |
| 2.2.2 | Zine-forum. | 3 |
| 2.2.3 | Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna. | 3 |
| 2.2.4 | Agerpenak komunikabideetan (prentsa, irratia eta telebista). | 4 |
| 2.2.5 | Informazio-materiala zabaltzea. | 6 |
| 2.2.6 | Hedapena gazteen artean (35tik beherakoekin). | 7 |
| 2.3 | ELKARTEGINTZA..... | 7 |
| 2.3.1 | Aldaketak Zuzendaritza Batzarrean. | 7 |
| 2.3.2 | Bazkide eta jarraitzaileen bilakaera. | 8 |
| 2.3.3 | DMD-DHE Euskadiko zuzendaritza-batzarra eta AFDMD federalekoak. | 9 |
| 2.3.4 | Lan-taldeetako bilerak. | 9 |
| 2.3.5 | Lurralde historikoetako bazkideen bilerak. | 10 |
| 2.3.6 | Arreta pertsonalizatua. | 11 |
| 2.3.7 | Dokumentazioa prestatzea/eguneratzea. | 11 |
| 2.3.8 | Beste batzuk. | 12 |
| 2.3.9 | Inbentario eguneratua. | 12 |
| 2.4 | 2020KO ONDORIOAK ETA 2021ERAKO PROPOSAMENAK. | 12 |
| 2.4.1 | 2020ko ondorioak. | 12 |
| 2.4.2 | 2021erako proposamenak. | 13 |
| 3 | 2020KO TXOSTEN EKONOMIKOA. | 14 |
| 3.1 | 2020KO KONTABILITATE-BALANTZEA..... | 14 |
| 3.2 | 2021ERAKO AURREKONTUA. | 16 |

1 Sarrera.

DMD-DHE Euskadi (NIF-G20769659) irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona orok bere bizitza amaitzeko unea eta modua askatasunez eta legez erabakitzeko duen eskubidea defendatzen du, batez ere narriadura itzulezina eta sufrimendu jasanezina duenean. 2002ko otsailetik dago inskribatuta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean (AS/G/09652/2002), eta hiru lurralde historikoetako bazkideek osatzen dute. Aldi berean estatu mailako egitura federal baten parte da, eta, beste talde autonomiko batzuekin batera, 1984an sortutako AFDMD Elkarte Federala osatzen dute.

2020 urtea ohiz kanpoko izan da. Bi gertaera historikok markatu dute gure elkartearen jarduera, eta, nola edo hala, etorkizuna berrorientatu egingo dute: pandemia eta LORE legea.

Alde batetik, Covid-19ren pandemiak, eta berarekin batera martxotik eta urteko gainerako hilabeteetan mugitzeko eta biltzeko eskubidearen gainean ezarritako murrizketek, nabarmen murriztu dute elkartearen jarduera, batez ere hezkuntzari eta hedapenari dagokienez, alde horretatik Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna 2021era atzeratu izana azpimarratu daitekeela.

Aldi berean, muga horiek beraiek izan dira komunikazio-modu alternatiboak bilatzera eta erabiltzen ikastera bultzatu digutenak, Interneteko teknologiak baliatuz. Ziur gaude etorkizunean ere erabiliko ditugula. Alternatiben azterketa honetan, AFDMDren Bulego Teknikoak egindako jarduera nabarmendu behar da, maiatzean kanal propioa sortu baitzuen YouTuben, eta hurrengo hilabeteetan zehar hainbat bideokonferentzia, hitzaldi, eztabaida, bideo eta aurkezpen antolatu baititu, informazioa *on-line* zabaltzeko asmoz.

Beste alde batetik, 2020ko abenduaren 17an, hiltzeko laguntza behar zutela aldarrikatzeko hainbat pertsonak izan zuten ausardiari esker, eta gure elkarteak 36 urtez aktibismoaren ondorioz, Diputatuen Kongresuak, gehiengo osoz (aldeko 198 boto, aurkako 138, 2 abstentzio eta 12 falta), onartu zuen Eutanasia Arautzeko Lege Organikoa (LORE).

Estatuko pertsona guztien bizitza eta heriotza hobetzeko funtsezko pausoa den arren, ez da erabat egokitzen gure elkartearen helburu guztietara; izan ere, autonomia personalak eta norberaren bizitzari buruz erabakitzeko eskubideak mugak dituzte oraindik, eta hirugarren pertsonen erabakiaren mende geratzen dira, haien errespetua erabat bermatu gabe, eta haien aplikazio praktikoa oztopatzeko aukera irekita utziz.

Hurrengo urteetan gure elkarteak aukera izango du erakunde arduradunekin lankidetzan aritzeko, legea garatu eta ezar dadin eta herritarren artean haren ezagutza zabaldu, behar bezala aplikatzen dela ziurtatu, eta beharrezkotzat jotzen diren hobekuntzak proposatu ahal izateko.

Gainera, orain arte heriotzaren tabua hausteko egin den hedapen-lanarekin jarraituko du elkarteak, norberaren bizitzaz libreki erabakitzeko eskubidea defendatuz, herritarren artean gure bizitzaren fase horri buruzko gogoeta lasaia eta naturala sustatuz, eta ditugun eskubide eta aukeren berri emanez, heriotza gure balio, nortasun eta biografiaren arabera ahalik eta duinen izan dadin.

2 Elkartearen jarduera 2020an.

DMD-DHE Euskadiren 2020ko jarduera aurreko urteetako ohiko hiru esparrutan gauzatu zen:

- Ekintza politikoa. Alderdi politikoekin eta erakunde publikoekin harremanetan jartzeko, Eutanasiako lege bat babestu dezaten, heriotzaren kalitateari buruzko adierazleak zehaztu eta bizitzaren amaierako eskubideen ezagutza sustatu dezaten.
- Hezkuntza- eta hedapen-ekintza. Gizarteari bizitzaren amaierako ibilbidean dituen eskubideen berri emateko eta, Aurretiazko Borondateen Dokumentuaren(DVA) ezagutza hobetzeko. Baita elkartearen filosofia zabaltzea eta eutanasiarako eskubidearen beharraz sentsibilizatzea ere.
- Elkartegintza. Barne-komunikazioa eta bazkideen parte-hartzea hobetzeko. Herritarrak elkarera bultzatzea. Autonomia erkidegoan beste elkarte batzuekin elkarlanean aritzea. Kudeaketa eraginkorra, demokratikoa eta gardena egitea.

LORE 2020an onartzearen ondorioz jarduera horietako batzuk egoera berrira egokitu beharko dira datozen urteetan.

Hona hemen urtean zehar egindako jarduerak:

2.1 Ekintza politikoa.

1. Urtarrila. Urtearen hasieran, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroarekin ohiko harremana izan genuen, Euskadin erregistratutako DVAen bilakaeraren informazio eguneratua jasotzeko asmotan.
2. Apirila. EH-Bildu harremanetan jarri zen DMD-DHE Euskadirekin, LOREri egindako zuzenketen proposamenean gure balorazioa eta ekarpenak egiteko (fase horretan legea Justizia Batzordean zegoen). Zenbait iruzkin bidaliz erantzun zitzairen, eta Federalarekin koordinatzeko iradokizuna egin zitzairen, autonomia-erkidegoetako eta tokiko talde guztien ekarpenen bilketa zentralizatzen ari baitzen.
3. Ekaina. Elkarrekin Podemos-IU DMD-DHE Euskadirekin harremanetan jarri zen, hauteskunde autonomikoetan bere programaren esparruan heriotza duinari buruzko ekarpenak eskatzeko. Hainbat proposamenekin erantzun zitzairen.

2.2 Hezkuntza- eta hedapen-ekintza.

2.2.1 Solasaldiak-eztabaidak.

1. Bizkaian, urtarrilaren 23an. Karabi Azpi Elkarteak Berangoko Simon Otxandategi Kultur Etxean antolatutako hitzaldia: "Heriotza duina izateko eskubidea eta Bizi-Testamentua". Julen Goñi eta Rafael Sal aritu dira. 42 lagun bertaratu ziren eta diptikoak eta aldizkariak banatu ziren.
2. Gipuzkoan, otsailaren 4an. DVA lantegia Abaroa jubilatuen etxean (Etxaluze eraikina, Arrasate). Hizlariak: Marta Barandiaran, Gurutze Zubillaga eta Arantza Garaialde. 40 pertsonak hartu dute parte.
3. Araban, otsailaren 5ean. Foru Aldundiak antolatutako hitzaldia, Hirugarren Adinekoen Gelen programaren barruan, Berantevillako eskola zaharretan, "Norberaren bizitzaren eskuragarritasuna" gaiari buruz. Heriotza duina: eutanasia, aringarriak eta aurretiazko borondateak". Cristina Valverdek eman du. 16 lagun bertaratu dira eta DMD-DHE Euskadiren zein DVAren 10na diptiko banatu dira.

4. Araban, otsailaren 7an. “La Botería” taldearen lokalean (Vitoria-Gasteiz) DMD-DHE Euskadi elkartearen helburuei eta DVARI buruzko hitzaldia. Parte-hartzaileak: Cristina Valverde, Blanca Martínez, Delia Rodrigo eta Visi Ecay.
5. Araban, otsailaren 12an. Amurrioko Nagusien Etxeko Hirugarren Adinekoen Gelen programaren barruan Aldundiak antolatutako hitzaldia, "Norberaren bizitzaren eskuragarritasuna" gaiari buruzkoa. Heriotza duina: eutanasia, aringarriak eta aurretiazko borondateak”. Cristina Valverdek ematen du.
6. Gipuzkoan, otsailaren 29an. DMD-DHE Euskadi Elkarteari buruzko hitzaldia Aurretiazko Borondateen Dokumentuaz (DVA), Intxaurrondoko Jubilatuen Etxean, Donostian. Marta Barandiaranek emana.
7. Gipuzkoan, otsailaren 6an. Mahai-ingurua, FECek (Fundación por la Europa de los Ciudadanos) eta Ezker Batuak antolatuta. San Telmo Museoan. Parte-hartzaileak: Isabel Salud, IUren izenean, Marta Barandiaran, DMD-DHE Euskadiren izenean, eta Txema Lorente, SOS Amatzuren kasua dela-eta. Maribel Tellaetxeri buruzko La Promesa dokumentala proiektatu da.
8. Araban, martxoaren 2an. Aldundiak antolatutako hitzaldia, Hirugarren Adinekoen Gelen programaren barruan, Samaniegoko Kultur Etxean, "Norberaren bizitzaren eskuragarritasuna" gaiaren inguruan. Heriotza duina: eutanasia, aringarriak eta aurretiazko borondateak”. Cristina Valverdek ematen du. 100 lagun bertaratu dira DMD-DHE Euskadiren 56 diptiko eta DVAREN 70 banatu dira.
9. Araban, azaroaren 5ean. Aldundiak antolatutako hitzaldia, Zigoitiko Hirugarren Adinekoen Gelen programaren barruan, "Norberaren bizitzaren eskuragarritasuna. Heriotza duina: eutanasia, aringarriak eta aurretiazko borondateak”. Bertan behera utzi da.

2.2.2 Zine-forum.

1. Bizkaian, otsailaren 14an. SOS Amatzuk “Bizitza eskubide bat da, ez betebeharrak” gaiaren inguruan antolatutako ekitaldia, Portugaleteko Merkatuan. “La Promesa” dokumentalaren emanaldia, mahai-ingurua eta ondorengo prentsaurrekoa. Parte-hartzaileak: Danel Aser Lorente, Txema Lorente, Maribel Tellaetxeren semea eta alarguna, eta Marcos Ariel Hourmann eta Víctor Landa medikuak. DMD DHE Euskaditik 4 bazkide, Julen Goñi, Puri, Julia eta Rafael Sal joan ziren.
2. Bizkaian, martxoaren 11n. Kanadako “Y lloraron pájaros” filmaren emanaldia, Bilboko Abandoibarran, Bizkaia Aretoko Baroja aretoan (UPV/EHU). Ondoko eztabaidan Concha Castellsek eta Rafael Salek hartu dute parte.

2.2.3 Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna.

Azaroaren 7an Gasteizko Europa Biltzar Jauregiko Francisco de Vitoria auditorioan egitea aurreikusita zegoen, programa honekin:

Hiru hitzaldi izango dira. Hitzaldien artean, **“La muerte, digna i il.lustrada”** erakusketako pinturak proiektatuko dira. **DMD Catalunya sortu** duen erakusketa da, heriotza duinaren ikuspegi berezia irudikatu duten artista gazte batzuen laguntzarekin. **Gasteizko kulturaren eta gizartearen ahotsek** errezeitatuko dute artista bakoitzak bere lanari buruz egin duen deskribapena.

10:00 | ATEAK IREKITZEA

10:30 | AURKEZPENA. Mario Unamuno, DMD-DHE Euskadiko kidea.

10:45 | HITZALDIA. Concha Castells Carrillo. Medikua. DMD-DHE Euskadiko lehendakaria. “Pandemia garaian hiltzea. Eutanasiaren Lege Proiektua (LORE)”.

11:05 | PROIEKZIO errezeitatua (1. ZATIA).

11:25 | HITZALDIA. Iñaki Olaizola Eizagirre. Antropologoa. DMD-DHE Euskadiko kidea. “Borondatezko heriotza, aurrez aurreko kategoria”.

12:00 | PROIEKZIO errezeitatua (2. ZATIA).

12:20 | HITZALDIA. Loren Arseguet. DMD Federalaren Nazioarteko Taldearen arduraduna. “Eutanasia, nazioarteko ikuspegia. Eutanasia Arautzeko Lege Organikoaren (LORE) proposamenarekin alderatzea”.

12:55 | PROIEKZIO errezeitatua (3. ZATIA).

13:30 | AMAIERA. Concha Castells Carrillo. DMD-DHE Euskadiko lehendakaria.

Erakusketako koadroei dagozkien testuen irakurketan parte hartuko dute: Pilar Albajar, Patxi Zubizarreta, Mertxe Lozano, Txus Iparragirre, Antonio Altarriba, Iban Zaldúa, Isabel Garraza, Uri Ruiz Bikandi, Rosa Plazaola, Mikel Urdangarin, Leire Zugazua, Idoia Agirre eta Club de los Poetas Rojos (Esther Vara, Luis Lagos, Teresa Velasco eta Txaro Martínez).

Iñaki Olaizola Eizagirreren “Borondatezko heriotza, aurrez aurreko kategoria” txostena eskuragarri dago DMDren webgunean:

<https://derechoamorir.org/2020/10/29/muerte-voluntaria-una-categoria-prejuridica/>

Urriaren amaieran, dena prest zegoen ekitaldirako, hainbat aretoren erabilgarritasuna eta erreserba kudeatu ondoren, arduradunekin harremanetan jarri ginen Covid-19 aurkako gauzatze-eta segurtasun-baldintzak ezartzeko, erakusketako koadroetako sinopsien irakurleekin harremanetan jarrita parte-hartzea planifikatu genuen eta aurkezpenetarako materiala prestatu.

Alabaina, Eusko Jaurlaritzak urriaren 26ko 36/2020 dekretuan ezarritako mugitzeko eta biltzeko murrizketen ondorioz, ia ezinezkoa zen ekitaldia aurreikusitako baldintzetan egitea, eta egun horietan gertatzen ari zen Covid-19 kutsatzeen hazkundearen aurrean zuhertasun-irizpidea lehenetsi genuen, ospakizuna 2021era atzeratzea erabakiz. Urriaren 28an bazkideei jakinarazi zitzaizen atzerapena posta elektronikoen bidez.

2.2.4 Agerpenak komunikabideetan (prentsa, irratia eta telebista).

1. Irratian, otsailaren 13an. Onda Vascan, “Euskadi hoy” saioak “Zainketa aringarriak eta eutanasia osagarriak dira” gaiari buruzko elkarrizketa. Cosme Naveda, Bizkaiko Medikuen Elkargoko lehendakaria, eta Julen Goñi, DMD-DHE Euskadiko ordezkaria.

<https://www.ondavasca.com/#/audios/los-cuidados-paliativos-y-la-eutanasia-son-complementarios>

2. Prentsan, otsailaren 17an. Noticias de Gipuzkoa egunkarian, “Eutanasia lozorrotik esnatzen da eskubide usurpatu gisa” artikulua, LORE izapidetzearen aurrerapenari buruzkoa. Iñaki Olaizola eta Marta Barandiaran.

<https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/actualidad/sociedad/2020/02/17/eutanasia-despierta-letargo-derecho-usurpado/1013998.html>

3. Prentsan, otsailaren 19an. IVAP Ohian, erreportajea. DMD-DHE Bizkaia Julen Goñiren izenean.
4. Irratian, otsailaren 26an. HalaBedi Irratian (Gasteiz), “Suelta la Olla” programa. Eutanasiaren lege-proiektuaren alderdi positiboei eta gabeziei buruzko elkarrizketa Cristina Valverderi.
<https://halabedi.eus/es/derecho-a-morir-degnamente-se-felicita-por-la-tramitacion-de-la-ley-de-eutanasia/>
5. Irratian, otsailaren 28an. Arabako Errioxako irratian (Laguardia irratia), Cristina Valverderi elkarrizketa, DMD elkarteari buruz eta martxoaren 2an Samaniegon egingo den hitzaldiaz.
<http://arabakoerrioxa.eus/es/radio/podcast/otros/2282-asoc-derecho-a-morir-dignamente-28-02-2020>
6. Telebistan, martxoaren 2a. Hamaika Telebistan, “Gurean gaur” saioan, Marta Barandiarani LORE buruzko elkarrizketa.
<https://www.hamaika.eus/bideo-saioak/gurean-gaur/Marta-Barandiaran-Heriotza-Duinerako-Eskubidea-Lege-hau-oso-murriztailea-iruditzen-zaigu-hala-ere-pauso-bat-da-.html>
7. Irratian, abuztuaren 31n. Euskadi Irratian, “Faktoria” saioa, Iñaki Olaizolari elkarrizketa hileta-erritulari buruz eta heriotzarekin dugun harremanari buruz.
<https://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/faktoria/osoa/7460148/zergatik-joaten-dira-hiletetara-hildakoen-gustukoak-ez-ziren-pertsonak/>
8. Irratian, azaroaren 2an. Radio Vitorian, Cristina Valverderi elkarrizketa Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna dela eta.
<https://www.eitb.eus/es/radio/radio-vitoria/programas/radio-vitoria-gaur-magazine/detalle/7606019/2-noviembre-dia-internacional-muerte-digna-----/>
9. Irratian, azaroaren 2an. Onda Ceron, “Más de uno Álava” saioan, Cristina Valverderi elkarrizketa egingo diote Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna dela eta.
https://www.ondacero.es/emisoras/pais-vasco/audios-podcast/alava-mas-de-uno/mas-uno-alava-susana-marques_202011025f9fcd7d0e37c400014b94a0.html
(1:13:15 inguruan hasten da)
10. Prentsan, urriaren 30ean. Berrian, Bizkaiko Hitza aldizkarian, “Ez baduzu nork egin, hiletarik ez egitea zilegi ikusten dut; zertarako?” Iñaki Olaizolaren artikulua.
https://www.berria.eus/pdf_artxiboa/2020/2020-10-30_BIZKAIA_HITZA_764804ea4f1164c1.pdf
11. Irratian, abenduaren 17an. Cadena SER Vitorian, “Hoy por hoy Vitoria” programa, LORE onesteari eta DMD-DHE Euskadik deitutako kontzentrazioei buruz. Cristina Valverde hartu du parte.
https://play.cadenaser.com/audio/ser_vitoria_hoyporhoyvitoria_20201217_122000_140000/
(40. minutuan hasten da, gutxi gorabehera)
12. Irratian, abenduaren 17an. Cadena SER Bilbaon, “Hoy por hoy Bilbao” programa, LORE onesteari eta DMD-DHE Euskadi deitutako kontzentrazioei buruz. Hizlaria: Rafael Sal.
https://play.cadenaser.com/audio/ser_bilbao_hoyporhoybilbao_20201217_122000_140000/
(audioaren hasieratik, 8 minutuz)
13. Irratian, abenduaren 17an. Onda Cero Vitoria-n, “Más de uno Álava” programa, LORE onartzeari buruzkoa. Cristina Valverde hartu du parte.
https://www.ondacero.es/emisoras/pais-vasco/audios-podcast/alava-mas-de-uno/mas-uno-euskadi-eduardo-yanez_202012175fdb1e4fae19b30001f00ac7.html
(1:11:15 inguruan hasten da)

14. Irratian, abenduaren 17an. Naiz Irratian, Julen Goñiri elkarrizketa LORE onartzeari buruz.
<https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20201217/julen-goni-heriotza-duina-pauso-ikaragarria-da-eutanasiaren-legearen-alde-36-urte-daramagu-borrokan>
15. Prentsan, abenduaren 17an. Diario Vascon, “Qué mejor muerte que rodeado de tu familia y sin que te torturen” artikulua. Joan Mari Irigoien idazleari elkarrizketa, Marta Barandiaranen parte hartzearekin.
<https://www.diariovasco.com/gipuzkoa/mejor-muerte-rodeado-20201217002305-ntvo.html>
(harpidetzarekin)
16. Irratian, abenduaren 18an. Radio Vitorian, LORE onartzeari buruzko “Gaur actualidad” programa. Cristina Valverde hartu du parte.
<https://www.eitb.tv/es/radio/radio-vitoria/radio-vitoria-gaur-actualidad/7415083/7715861/radio-vitoria-gaur-actualidad-18-12-2020/>
(1:35:15 inguruan hasten da)
17. Prentsan, abenduaren 19an. Diario Vascon, “Eutanasiaren legeak heriotzaren eta bizitzaren kalitatea hobetuko du” artikulua. Elkarrizketa Iñaki Olaizolari.
<https://www.diariovasco.com/sociedad/salud/inaki-odriozola-eutanasia-20201219191730-nt.html>
(harpidetzarekin)
18. Prentsan, abenduaren 18an. Berria, “Onespena jaso du eutanasiak” artikulua. Eutanasiaren Legeari buruzko elkarrizketa Concha Castellsi.
<https://www.berria.eus/paperekoa/2151/003/002/2020-12-18/poz-handiz-jaso-dugu-berria-eta-uste-dugu-aurrerapauso-bat-dela.htm>
19. Irratian, abenduaren 19an. Onda Vascan, “Euskadi Hoy Fin de semana” saioan, Concha Castellsi elkarrizketa egingo diote Eutanasiaren Legea onartzeari buruz.
<https://www.ondavasca.com/#/audios/derecho-a-morir-dignamente-valora-la-aprobacion-de-la-ley-de-eutanasia>
20. Irratian, abenduaren 21ean. Tafalla-Bedi irratian, Mario Unamunori elkarrizketa Eutanasiako Legea onartzeari buruz.
<https://halabedi.eus/es/mario-unamuno-duintasunez-hiltzeko-eskubidea-norberaren-askatasunak-izan-behar-du-nagusu-inori-kalterik-egiten-ez-diodan-neurrian/>
21. Irratian, abenduaren 23an. HalaBedi irratia, “Suelta la Olla” programa, Mario Unamunori elkarrizketa Eutanasiaren Legea onartzeari buruz.

2.2.5 Informazio-materiala zabaltzea.

2020an, pandemiak eragindako mugitzeko eta biltzeko murrizketek *on line* edukien hedapena bultzatu zuten. Maiatzean, AFDMDren YouTubeko kanala estreinatu zen, eta laster multimedia-eduki ugariarekin osatu da (elkarrizketak, eztabaidak, tailerrak eta hitzaldiak, aurkezpenak, etab.):
<https://www.youtube.com/c/DerechoaMorirDignamente>

- Maiatzaren 27an, “Eutanasiari buruz jakin beharreko 10 gauza” bideoa aurkeztu zen kanal horretan, eta Concha Castells Carrillok hartu zuen parte.
<https://www.youtube.com/watch?v=4jouZqRDr6c>
- Julen Goñi DMD-DHE Bizkaiko bazkideak ere bere kanal pertsonala sortu du YouTubean, eutanasiaren aldeko bi aurkezpen zabaltzeko:
 - “Eutanasiaren alde”. <https://www.youtube.com/watch?v=FG852kuhzoU>
 - “Egiak eutanasiari buruz”. <https://www.youtube.com/watch?v=HTKbdIEIRZA>

Bestalde, gure ekitaldi gehienetan banatu dira DMD-DHE Euskadiren informazio-diptikoak eta Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Aurretiazko Borondateen Dokumentuari (DVA) buruzko informazio-diptikoak (2021etik aurrera DMD-DHE Euskadik egindako diptikoa banatuko da azken horren ordez).

Gainera, DMD aldizkariaren zenbaki berri bakoitzaren aleak banatu dira Gasteizko gizarte-etxeetako liburutegien artean.

2.2.6 Hedapena gazteen artean (35tik beherakoekin).

1. Bizkaian, otsailaren 3an. Elkarrizketa Alberto Secorekin, Deustuko Unibertsitateko Gizarte Lana izeneko graduko ikaslearekin, eutanasiari buruzko Gradu Bukaerako Lanari buruz. DMD-DHE Bizkaia aldetik Maribel del Valle eta Rafael Sal izan dira.
2. Bizkaian, martxoaren 2an. EHUKo Medikuntzako Ikasleen Elkarteak antolatutako hitzaldi-solasaldia, "Eutanasia: doitasun terminologikoa" gaiari buruz. Elena Gutiérrez eta Rafael Sal arituko dira.
3. Bizkaian, martxoaren 4an. Elkarrizketa Ander Balanzategiri, Lamordaza kazetaritza-aldizkariaren zuzendari-arduradunari. Rafael Sal eta Julen Goñi aritu dira.
<https://lamordaza.com/actualidad/eutanasia-espana-ve-la-luz-al-final-del-tunel/>
4. Bizkaian, urriaren 29an. Elkarrizketa Alberto Secorekin, Deustuko Unibertsitateko Gizarte Lana izeneko graduko ikaslearekin, eutanasiari buruzko Gradu Bukaerako Lanari buruz. Parte-hartzaileak: Rafael Sal.
5. Gipuzkoan, urriaren 31n. Donostiako Santo Tomas Lizeoarekin elkarlanean aritzea eutanasiari buruzko erreportaje baten azalpenean. Marta Barandiaranek parte hartuko du.
6. Bizkaian, abenduaren 3an. UPV/EHUKo kazetaritza-ikasleek argitaratutako Portuinfo (Portugaleteko informazioa) online aldizkariarekin lankidetzan aritzea, "La Promesa. Maribel Tellaetxeren historia islatzen duen Danel Lorenteren film laburra". Julen Goñik hartu du parte.
<http://portuinfo.tk/?p=346>

2.3 Elkartegintza.

2.3.1 Aldaketak Zuzendaritza Batzarrean.

Covid-19ko pandemia dela eta, ez da Ohiko Batzarra egin 2020an, eta indarrean daude 2019/05/18an egindako Batzarrean hartutako erabakiak.

Ekainean, Teresa García del Valle Irala (Bizkaia) bazkideak, diruzain-kargua betetzen zuenak, dimisioa aurkeztu zuen Zuzendaritza Batzarrean. 2020/06/13an egindako batzarrean (bideokonferentzia), Carlos Burón Herrera (Araba) jarduneko diruzain izendatzea erabaki da, hurrengo batzarra egin arte.


2020/12/31n, DMD-DHE Euskadiko Zuzendaritza Batzordea bazkide hauek osatzen zuten:

- Lehendakaria, Concha Castells Carrillo (Bizkaia).
- Lehendakariordea, Iñaki Olaizola Eizagirre (Gipuzkoa).
- Idazkaria, Cristina Valverde Ibáñez (Araba).
- Diruzaina (jardunean), Carlos Burón Herrera (Araba).
- Batzordekideak:
 - Marta Barandiaran Forcada (Gipuzkoa).
 - Arantza Garaialde Maiztegi (Gipuzkoa).
 - Juantxo Domínguez López (Gipuzkoa).


- Rafael Sal Fernández (Bizkaia).
- Julen Goñi Salvador (Bizkaia).
- Esperanza Urreta Espín (Araba).
- Mario Unamuno Plazaola (Araba).

2.3.2 Bazkide eta jarraitzaileen bilakaera.


2020/12/31ra arte baloratutako datuak.



2020/12/31n, 75 jarraitzaile zeuden (Araba 16, Bizkaia 36, Gipuzkoa 23).



Bazkideen hazkunde garbia 23koa izan da (%5,7), azken 5 urteetako txikiena. Pandemiaren ondorioak eta jarduera-murrizketa nabaritu dira.



Martxotik aurrera, pandemia ofizialki deklaraturakoan, behera egin zuen, udako hilabeteetan pixka bat indarberritu egin zen, eta, abenduan, igoera txiki bat izan zuen, ziur aski LORE onartu zelako.

2.3.3 DMD-DHE Euskadiko zuzendaritza-batzarra eta AFDMD federalekoak.

- Urtarrilaren 25a. DMD-DHE Euskadiko Zuzendaritza Batzarraren bilera. Elkartearen Deustuko egoitzan bertan.
 - Maiatzaren 16a. DMD-DHE Euskadiko Zuzendaritza Batzarraren bilera. Bideokonferentzia.
 - Maiatzaren 23a. AFDMDren bilera, erkidegoetako eta tokiko taldeen parte-hartzearekin. DMD-DHE Euskaditik Concha Castells, Cristina Valverde eta Rafael Salek hartu dute parte. Bideokonferentzia.
 - Ekainaren 13a. DMD-DHE Euskadiko Zuzendaritza Batzarraren bilera. Bideokonferentzia.
 - Uztailaren 7a. AFDMDren bilera. DMD-DHE Euskadiren partetik Rafael Sal eta Cristina Valverde izan dira.
 - Irailaren 16a. DMD-DHE Euskadiko Zuzendaritza Batzarraren bilera. Bideokonferentzia.
 - Urriaren 24a. AFDMDko bazkideen ohiko batzarra. DMD-DHE Euskaditik Concha Castells, Cristina Valverde eta Rafael Salek hartu dute parte. Bideokonferentzia.
 - Azaroaren 26a. DMD-DHE Euskadiko Zuzendaritza Batzarraren bilera. Bideokonferentzia.
- Bilera guztietako akta dago.

2.3.4 Lan-taldeetako bilerak.

- DMD-DHE Arabak lan-talde bat osatu zuen Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna prestatzeko, eta hainbat aldiz bildu zen ekainean eta azaroan. Parte-hartzaileak: Cristina, Mario, Espe, Delia, David, Visi, Ricardo eta Carlos.
- Azaroaren 4a. AFDMDko talde autonomikoen eta lokalen bilera, LORE komunikatzeko estrategia definitzeko. DMD-DHE Euskaditik Juantxo, Cristina eta Rafak hartu dute parte. Bideokonferentzia.
- Azaroaren 19a. AFDMDren lantaldearen bilera, Aurretiazko Borondateen Agiriaren edukia eta aplikazioa hobetzeari buruz. DMD-DHE Euskadiko ordezkariak: Julen, Juantxo, Cristina eta Rafa. Bideokonferentzia.
- Abenduaren 3a. AFDMDren lantaldearen bilera, estatutuetan eta elkartearen barne erregelamenduan behar diren egokitzapenei buruz, LORE onar daitekeela ikusita. DMD-DHE Euskaditik Rafael Salek hartzen du parte. Bideokonferentzia.
- Abenduaren 9a. AFDMDko eta DMD-DHE Euskadiko Zuzendaritza Batzordeen arteko lehen bilera. Bideokonferentzia.
- Abenduaren 11. AFDMDko talde autonomikoen eta lokalen bilera, DMDk LORE onartzeko unean egingo dituen ekitaldiak zehaztu eta antolatzeko. Bideokonferentzia.

2.3.5 Lurralde historikoetako bazkideen bilerak.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako taldeak aldi-an-aldian biltzen dira taldearen antolakuntza-alderdiak aztertzeko, jarduerak planifikatzeko, zuzendaritza-batzarrean edo eta federazio mailako lan-bileretan hitz egiten diren gaien berri emateko eta gaurkotasun-gaiei buruz eztabaidatzeko. Kasu batzuetan sakonago ezagutu nahi diren gai interesgarriei buruzko txostenak egiten dira bazkideen eskutik.

Bilera horiek jendearentzat ere irekita egon ohi dira (eta argitaratzen dira). Bazkide ez diren pertsonak etortzen diren kasuetan, beren zalantzak eta kezkak argitzen dira, eta DMD-DHE zer den eta haren filosofia eta helburuak azaltzen dira.

- DMD-DHE Araba hilaren azken asteazkenean biltzen da, 19:30ean, Gasteizko Barrenkale Elkartean (Aiztogile kalea, 61-behea, sarrera Santa Ana kantoitik).
- DMD-DHE Bizkaia hilaren azken asteazkenean biltzen da, 18:00etan, Araba kaleko 6an, Bilboko erdisotoan.
- DMD-DHE Gipuzkoa hileko bigarren ostegunean biltzen da, 19:00etan, Donostiako Idiakez kaleko 6an.

Aldizkako bilera presentzial horiek gehienak martxotik aurrera eten ziren, Covid-19ko pandemiaren ondorioz, mugitzeko eta biltzeko murrizketak hasi zirenean. DMD-DHE Gipuzkoan *on line* biltzen jarraitu zuten, ohiko pertsona batzuen artean, maiz egiten zuten bezala.

2020an bilera horietan landutako gai zehatzen adibide batzuk:

- Suizidioa historian zehar eta suizidio lagundua gaur egun munduan (Araba, urtarrila).
- Poliziaren presentzia eta bazkideen jarraipena, Internet bidezko erosketei dagokienez (Bizkaia, urtarrila).
- LOREaren eta AFDMDren jarreraren azterketa (Araba, otsaila).
- Erlijioaren presentzia gure bizitzari buruzko erabakiak hartzean (Bizkaia, otsaila).

Abenduaren 17an kontzentrazioetarako deia egin zen hiru lurraldeetako hiriburuetan, LORE Kongresuan onartu zela ospatzeko.



Bilbao



Donostia



Vitoria-Gasteiz

2.3.6 Arreta pertsonalizatua.

- Telefono bidezko arreta. 80 deiri erantzun zaie, gehienak DVA delakoarengatik. Neurri txikiagoan, Elkarteari eta borondatezko heriotzari buruzko informazio eskaerak (autoliberazioa).
- Posta elektronikoaren bidezko arreta. 1.400 mezu inguru jaso dira, besteak beste, DVA, borondatezko heriotza, Elkarteari buruzko informazio-eskaerak, erakundeekin, komunikabideekin edo beste elkarte batzuekin trukaturako mezuak eta elkartearen beraren kudeaketarako eta koordinaziorako barne-mezuak.
- Aurrez aurreko arreta. Bizkaian 3 elkarrizketa egin ziren urteko lehen hiru hilabeteetan. Araban pertsona batekin bildu ziren uztailen.
- AFDMDri bideratutako arreta. Alde medikoei buruzko 4 kontsulta eta alderdi juridikoei buruzko kontsulta bat bideratu ziren.

2020an, polizia-bisiten eta zitazio judizialen ondorioz, bi aholkularitza juridikorekiko harremana lotu da (bata Araban eta bestea Gipuzkoan), Euskadiko Erkidegoan bazkideei laguntzeko aukera aztertzeko, hala behar izanez gero.

Arabian uztailen eta urrian bilerak egin ziren bertako aholkularitzarekin, Gasteizko epaitegietan bazkide bati egindako zitazioarekin lotuta. Azkenean kasua artxibatu egin da.

2.3.7 Dokumentazioa prestatzea/eguneratzea.

Atal honetan dokumentuak prestatu edo eguneratzeko jarduera biltzen da, bai elkartearen funtzionamenduan beharrezkoak direnak, bai elkartearen jarduerarekin eta haren xedeekin zerikusia duten gaii buruz informatzeko eta jendaurrean zabaltzeko direnak.

DMD-DHE Euskadin sortutako dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz dago.

2020an dokumentu hauek landu dira nagusiki:

- Aurretiazko Borondateen Dokumentuaren gida azkarra, diptiko-formatuan, martxoan aurkeztua.

DMD-DHE Euskadiren edizio honetan Eusko Jaurlaritzak argitaratutako diptikoak ordezkatu nahi dira. Izan ere, diptiko horiek gure ekitaldi askotan banatzen ari ginen, eta alderdi batzuetan eguneratu gabe zeuden.

- DMD-DHE Euskadiren Estatutuak zuzentzea eta bi zutabetan formateatzea (gaztelaniaz/euskaraz). Apirilean aurkeztutako dokumentua.
- Bazkideei ongietorria egiteko gutuna eguneratzea, maiatzean aurkeztua.
- DMD-DHE Euskadiren eredu ekonomikoa, ekainean aurkeztua.

Elkartearen jarduera ekonomikoaren garapenean jarduteko prozedurak biltzen dituen dokumentua da.

- Bazkideei eta komunikabideei Heriotza Duinaren Nazioarteko Egunaren berri ematekoa (azkenean, 2021era atzeratu da), azaroan zabaldua.
- 2019ko DMD-DHE Euskadiren memoria, abenduan aurkeztua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko bazkideei zuzendutako gutunak. Bertan, ekitaldi garrantzitsuen berri ematen da: adibidez Ohiko Batzar Orokorra atzeratzea 2020tik 2021era, LORE Kongresuan onartzea eta horrekin lotutako kontzentrazioak deitzea.

2.3.8 Beste batzuk.

2020an, beste gai garrantzitsu bat izan zen AFDMDren Batzar Orokorrak urriaren 24an onartu zuen bazkide izateko gutxieneko kuota 42 €/urte izatetik 50 €/urte izatera pasatzea 2021eko urtarriletik; izan ere, urte askotan ez zen eguneratu, eta beharrak eta gastuak handituz doaz urtetik urtera.

2.3.9 Inbentario eguneratua.

2020/12/31n, Elkartearen ekipamenduaren eta materialaren inbentarioa hau izan zen:

1. AHTEC 2009 ordenagailua. Arabako taldeak erabiltzen du. Kristina da arduraduna.
2. HP STREAM 11-ROONS ordenagailua (2016/11/17an eresia; 228,65 € BEZarekin) eta SPECTRUM zorroa (19,95 € BEZarekin). Bizkaiko taldeak erabiliak. Bilboko egoitzan gordeta.
3. ULTRA 3.0 32GB flash memoria (8,90 € BEZarekin), HP ordenagailuaren sistema berreskuratzeko. Bilboko egoitzan gordeta. Bizkaiko Taldea.
4. Logitech m100 sagua (2017/03/22an eresia; 13,99 € BEZarekin). Bizkaiko taldeak erabilia. Bilboko egoitzan gordeta.
5. Toshiba Satellite Pro R50-E-13X Intel Core i3-7020U/8 GB/256 GB ordenagailu eramangarria. Gipuzkoako taldeak erabilia.
6. Hiru telefono mugikor, lurralde bakoitzeko taldeek erabiltzeko (bat talde bakoitzeko).
7. Armairua, melanina zuriz egina, 45 cm zabal, 42 cm sakon, 78 cm garai, barruko apala eta atea giltzaz dituela (147,62 € BEZarekin). Bilboko egoitzan dago. Bizkaiko taldea da arduraduna.
8. Lenovo V130-15IGM ordenagailu eramangarria, 81 HL004YS modeloa (Intel Celeron N4000/8GB/SSD 256 GB/15,6" /Windows 10), Kasperski Internet Security antivirusarekin batera (erabiltzaile 1). Urrian eskuratuak, 450 €. Bizkaiko taldeak erabiliak.
9. Xiaomi Redmi 9C telefono mugikorra (6,5" /memoria 3 GB/biltegitratzea 64 GB). Urrian eresia, 135 €. Ordura arte erabilitako mugikorraren ordeztatu du Bizkaiko taldeak, DMD-DHE Euskadi arretarako telefonoa.

2.4 2020ko ondorioak eta 2021erako proposamenak.

2.4.1 2020ko ondorioak.

Hedapenerako aurrez aurreko jarduera martxoan eten zen, pandemia zela eta. Baina egoera horrek berak eraman gintuen orain arte erabili ez genituen komunikazio- eta hedapen-aukerak bilatzera eta erabiltzen ikastera (bideokonferentzia bidezko bilerak, Internet bidezko elkarrizketak eta eztabaida publikoak, bideo-formatuko aurkezpenak YouTuben, etab.).

Metodo horiekin pixka bat ohitu ondoren, AFDMDren Bulego Teknikoak bultzatuta askotan (beraiek oso maiz erabili baitituzte), seguruenik gero eta gehiago erabiliko ditugu etorkizunean, dituzten abantailaz baliatuz (dituzten eragozpenak ere kontuan hartuta).

Bestalde, LORE onartzeak nabarmen aldatzen du gure elkartean lantzen ari ginen testuingurua. Horrek jarduera berriak planteatzera behartzen gaitu (dagoeneko egiten ditugunak alde batera utzi gabe), adibidez lege hau ahalik eta azkarren ezar dadin, herritarren artean ezaguna egin eta behar bezala aplikatu dadin.

Jarduera berri horiek egiteko lan handia egin beharko da, eta lan-taldetan antolatu eta ahalik eta bazkide gehienek lankidetzara eta parte hartzeira izango da beharrezkoa.

2.4.2 2021erako proposamenak.

LORE praktikan jartzeak eta legearen inguruko informazioa zabaltzeak orientatuko dute elkartearen jarduera 2021ean neurri handi batean. Lan hauetan adibidez:

- Legea ezartzeko faseak eta arloak identifikatzea, eta horietako bakoitzaren aurrean jarrera bat definitzea, horrela elkarre gisa kasuan kasuko erakunde publikoei proposamenak egiteko aukera edukitzeko: Berme eta Ebaluazio Batzordea (CGE) eratzea eta kideak proposatzea, kontzientzia-eragozpenaren kontrola, hiltzen laguntzeko eskaeren arretan sortuko den dokumentazioaren kudeaketa, botiken kudeaketa, osasun-esparru desberdinetako inplikazioa, zainketa aringarriak barne; eskaerak legearen arabera egiten/erantzuten direla kontrolatu eta ebaluatzea; aldian behin txostenak egitea; heriotzaren kalitatearen ebaluazioa, etab.).
- Legea ezartzeko ardura duten erakunde publikoekin harremanetan jartzea, gure gomendioak helarazteko eta haiei laguntza eskaintzeko.
- Alderdi politikoekin eta erakunde publikoekin harremanetan jartzea, LORE eta bizitzaren amaierari lotutako beste eskubide batzuen ezagutza sustatzeko, orokorrean zein dagozkien leku eta une egokietan (ospitaleak eta osasun-zentroak, adinekoen zentroak, ikastetxeak, etab.).
- Legearen ezaugarriari eta aplikazioari buruzko trebakuntza-dokumentazioa prestatzea, gure hedapen-egintzetarako edota *online* bidez azaltzeko.
- Orain arte bezala, solasaldiak antolatzen jarraituko dugu, indarrean dauden legeetan jasotako eskubideen berri zabaltzeko herritarren artean, bizitzaren amaierari, heriotza duin eta borondatezkoari eta elkartearen helburuei dagokienez.

Bestalde, LORE onartu ondoren agertoki berriak elkartearen barruko dokumentazioa eta dokumentazio administratiboa berrikustea eta eguneratzea ekarriko du (2018-2022 Plan Estrategikoa, estatutuak, DVA, ongietorriko gutuna, etab.).

3 2020ko txosten ekonomikoa.

2018ko maiatzaren 5eko Batzar Nagusian erabaki zen DMD-DHE Euskadiren kudeaketa ekonomikoa AFDMDk proposatutako Kutxa Bateratuaren ereduaren sartzea.

Eredu horretan, DMD-DHE Euskadiren diru-sarrerara eta gastu guztiak AFDMDren Bulego Teknikoak kudeatzen ditu, eta kontu bateratu federalean ezartzen dira, gainerako talde autonomikoenekin batera integratuta. Horrela, autonomia bakoitzeko kudeaketa administratiboa sinplifikatzen da, eta baliabideak modu federatuan erabiltzean eraginkortasuna hobetzen da.

Kutxa Bateratuaren ereduaren ondorioz, DMD-DHE Euskadiren kontabilitatean berariaz jaso behar da AFDMDk funtzionatzeko behar dituen gastu komunetan dagokigun zatia (profesionalen soldatak, webaren mantentze-lana, aldizkaria, etab.).

Era berean, DMD-DHE Euskadik bere kontuaren titularra izaten jarraitzen du (Laboral Kutxan). Kutxa Bateratuaren eredu aplikatu denetik, kontu horrek ez du ia jarduerarik, diru-sarrerara gehienak eta gastu guztiak Federalaren kontuan eragiten baitute. Gaur egun, DMD-DHE Euskadiren kontuak helbideratuta ez dauden kuota gutxi batzuen sarrerara baino ez du jasotzen, bazkide batzuek nahiago baitute bertan zuzenean egin.

3.1 2020ko kontabilitate-balantzea.

DMD-DHE Euskadiren titulartasuneko kontuaren balantzea ondoko hau izan da:

| | |
|----------------------|------------|
| 2019/12/31ko SALDOA | 2.784,73 € |
| 2020ko DIRU-SARRERAK | 659,00 € |
| 2020ko GASTUAK | - 40,00 € |
| <hr/> | |
| 2020/12/31ko SALDOA | 3.403,73 € |

Lehen esan bezala, helbideratu gabeko kuotei dagozkie sarrerak (helbideratuta daudenak kontu bateratu federalean sartzen dira). Gastuak kontuaren mantentze-gastuei baino ez dagozkie.

Bestalde, DMD-DHE Euskadik 2020an izan duen jardueraren balantze ekonomikoa (DMD-DHE Euskadiren kontu propioaren balantzea barne) beheko taulan dago jasota.

Puntu hauek nabarmendu behar dira:

- Ohiz kanpokotzat jo daitezkeen bi gastu izan dira: bi pankarta inprimatzea eta roll-up bat (lurraldeka) elkartearen kontzentrazioetan eta hitzaldietan zabaltzeko (Grepitex-en faktura), eta ordenagailu bat eta telefono bat erostea.
- DMD-DHE Euskadiren jarduerari soilik egotz dakioken gastua (hau da, AFDMDren jarduera bateratuari dagokion zatitik aparte) 5.507,51 eurokoa izan da, aurreko puntuan adierazitako aparteko gastuak barne. Hala ere, 2019koa baino %25 txikiagoa izan da gutxi gora-behera, eta hala espero zitekeen, presentziazko jarduera gutxi egin delako.
- AFDMDren gastu bateratuari dagokion jasotako gastua (16.397,17 €) %25ean handitu da, gutxi gora-behera, AFDMDren Bulego Teknikoaren gastu profesionalak eta egoitza nagusiaren alokairua handitu direlako.
- Balantzea positiboa da: 813,33 €.

DMD-DHE EUSKADI – 2020KO MEMORIA

| | DIRU-SARRERAK (€) | GASTUAK (€) |
|--|----------------------|------------------|
| DIRU-SARRERAK | | |
| KUOTAK (Kutxa Komuna + DMD-DHE Euskadiren kontua) | 22.718,00 | |
| BANKU-GASTUAK | | |
| MANTENTZE-GASTUAK (DMD-DHE Euskadiko kontua) | | 40,00 |
| GASTU PROFESIONALAK | | |
| AFDMD LAN-KONTRATUDUNAK | | 13.636,93 |
| AHOLKULARITZA FISKALA | | 510,05 |
| ZERBITZU INFORMATIKOAK | | 140,47 |
| KANPOKO LAN-ZERBITZUAK | | |
| ITZULTZAILEA | | 361,58 |
| GASTUAK MATERIAL KORPORATIBOAN | | |
| ALDIZKARIA (Euskadin banatzeko) | | 940,94 |
| MATERIAL KORPORATIBOA (Euskadin banatzeko) | | 354,33 |
| TRIPTIKOAK | | 329,12 |
| GREPITEX 2000541 FAKTURA | | 456,17 |
| DVA TAILERRETARAKO ERREPROGRAFIA ETA MATERIALA | | 47,25 |
| URTARRILA-MARTXOA EZTABAIDA-HITZALDIEN ERREPROGRAFIA | | 56,45 |
| UZTAILA-ABENDUKO BESTELAKO GASTUAK | | 153,83 |
| ESPazio ETA HORNIDURA GASTUAK | | |
| OSALDEKO LOKALA | | 1.200,00 |
| DMD-DHE EUSKADIKO ARRETARAKO TELEFONOA | | 729,50 |
| BULEGOAREN ALOKAIKUA (EGOITZA NAGUSIA) | | 1.442,63 |
| ELEKTRIZITATEA (EGOITZA NAGUSIA) | | 66,13 |
| TELEFONIA (EGOITZA NAGUSIA) | | 143,97 |
| RENTING ERREPROGRAFIAKO TALDEA (EGOITZA NAGUSIA) | | 67,67 |
| GASTUAK BULEGOKO MATERIALEAN | | |
| MATERIALAK BIDALTZEKO POSTA, ALDIZKARIAK, MATER. DVA (urtarrila) | | 28,50 |
| MRW BIDALKETAK | | 52,98 |
| ORDENAGAILUA+SMARTPHONE BIZKAIA. D/2224 FAKTURA | | 585,00 |
| MATERIALA (BULEGO FEDERALA) | | 389,31 |
| DMD-DHE EUSKADIKO EKINTZETAKO GASTUAK | | |
| ARRASATE TAILERREKO KM ABONUA (otsailak 4) | | 42,60 |
| AMURRIOKO EKITALDIKO KM ABONUA B.M. (otsailaren 12a) | | 24,60 |
| BATZARRAK | | |
| EUSKADIKO BATZAR PRESENTZIALA (urtarrilaren 25a) | | 104,66 |
| GUZTIRA | 22.718,00 | 21.904,67 |

BELTZA DMD-DHE Euskadiren jarduera esklusiboak eragindako gastuak.
GORRIA AFDMDren jarduera bateratuak eragindako gastuak.

3.2 2021erako aurrekontua.

Zaila da aurreikustea zer bilakaera izan dezakeen herritarrek DMDrekin elkartzeko dituzten jarrerak eutanasiaren legea indarrean dagoen egoera berrian. Bestalde, baliteke 2021ean pandemiak eragindako murriztapenek, urte erdira arte gutxienez, jarraitzea. Bi faktore horiek baldintzatzen dute 2021erako diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena.

Diru-sarrerei dagokienez, zentzuzkoa dirudi pentsatzea bazkideen hazkunde garbia 2020koaren antzekoa edo zertxobait handiagoa izango dela. %6ko hazkunde aurreikusten da. Hori kontuan hartuta, eta urtariletik 50 euroko gutxieneko kuota ezartzea kontuan hartuta, 25.800 euroko diru-sarrerak aurreikusten dira.

Gastuen atalean ez da aparteko gasturik espero. Federaleko bateratuan dagozkigun gastuen portzentajea 2020koaren antzekoa izango dela kalkulatu da (% 70). Gainera, 2020an Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna (eta beste ekitaldi presentzial batzuk) antolatze aurreikusi diren gastuak sartzen dira. Ekitaldi hori 2021ean egitea espero da. Erreprografiako eta materialeko gastuak %50 gehituko dira 2020koen aldean, aurreikusitako jarduera handiagoa dela eta. Batzarretara bertaratzeagatiko gastuak 2019koen erdiak izango direla kalkulatu da (jarduera presentziala urte erdian izango baita). Gastu finkoak 2020koen berdina izango dira.

Horiek horrela, 2021ean aurreikusitako sarrera/gastuen balantzea 1130,00 €-koa da, taula honetan ikus daitekeenez.

| | DIRU-SARRERAK (€) | GASTUAK (€) |
|--|----------------------|------------------|
| DIRU-SARRERAK | | |
| KUOTAK (Kutxa Bateratua + DMD-DHE Euskadiren kontua) | 25.800,00 | |
| DOHAINTZAK (Kutxa Bateratua + DMD-DHE Euskadiren kontua) | 0,00 | |
| DAGOZKIGUN GASTU BATERATUAK | | 18.000,00 |
| DMD-DHE EUSKADI-KO GASTUAK | | |
| BANKU-GASTUAK | | 40,00 |
| MANTENTZE BATZORDEA (DMD-DHE Euskadiko kontua) | | |
| GASTU PROFESIONALAK | | 360,00 |
| EUSKARA-ITZULTZAILEA | | |
| ESPAZIO ETA HORNIDURA GASTUAK | | 2.000,00 |
| OSALDEKO LOKALA | | |
| DMD-DHE EUSKADIKO ARRETARAKO TELEFONOA | | |
| BULEGOKO MATERIALEN GASTUAK | | 1000,00 |
| TRIPTIKOAK ETA ERREPROGRAFIA | | |
| DMD-DHE Euskadi MATERIALA ETA BIDALKETAK | | |
| DMD-DHE EUSKADIKO EKINTZEN GASTUAK | | 2.800,00 |
| HERIOTZA DUINAREN NAZIOARTEKO EGUNEKO EKITALDIAK | | |
| BESTE EKINTZA BATZUK | | |
| BATZARRAK | | 470,00 |
| BATZARRETARA JOATEA | | |
| GUZTIRA | 25.800,00 | 24.670,00 |



#LIBRES
HASTA EL
FINAL

dmddhe
DERECHO A MORIR DIGNAMENTE
DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA
E U S K A D I

✉ C/ Araba, 6 semisótano, 48014, Bilbao

☎ 635 738 131

@ dmdeuskadi@derechoamorrir.org

🌐 www.derechoamorrir.org

www.derechoamorrir.org/dmd-euskadi